

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### Udalak Antso Jakitunaren hiribidearen ardatz bikoitia berrurbanizatuko du


*Proiektuak 1.042.996 euroko aurrekontua du*

*Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako beste gai batzuk: Garberako biribilgunea, Suhiltzaileen ibilgailuak, Amara kaleko eraikinak, Barandak mantentzea, Tour de France*

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Antso Jakitunaren hiribideko ardatz bikoitia berrurbanizatzeko proiektua, 1.042.996 euroko aurrekontuarekin.

Antso Jakitunaren hiribideak Amara Berri eta Erdialdea lotzen ditu. Hiriarentzat arteria garrantzitsua da, eta urteetan zehar aldaketa asko izan ditu. Horrela, denbora luzez eta Donostiako saihezbidea egin zenetik, hiriaren erdialderako sarrera eta irteera nagusietako bat izan da.

Proiektuak eremu zabala proposatzen du, oztoporik gabea eta ondo argiztatua etxebizitzin eta saltokien ondoan, hiri altzariak berrantolatzea eta berdegune bat sortzea, pasabide hori galtzadatik bereizteko.



# Prensa oharra

## Nota de prensa



Erantzun horri esker, gainera, eremuko azpiegitura guztiak berritzen dira, kanpoko ilarako tamaina handiko zuhaitzei eragin gabe, eta ahal den neurrian ahalik eta eragozpen gutxien eragiten zaie bizilagunei obrak egiten diren bitartean.

Horretarako, zuhaitzen barneko lerroa kentzea proposatzen da, espaloi jarraitu zabal bat eta eremu berde bat sortuz bidearen ondoan, aldakorra izango dena. Zenbait zatitan berdegunea izango da erabat, eta beste zati batzuetan autobus geltokietako egungo markesinentzako igarobideak izango dira. Igarobideetan ere irekierak egongo dira, bizikletentzako aparkalekuekin, oinezkoen pasabideekin eta abarrekin. Errepidearen eta oinezkoen guneen arteko tarteak sortzeko aprobetxatuko da, autoek eragindako zarata murriztuz.

Horrela, 6 metro inguruko pasabide zabal bat sortuko da, paseatzeko ia oztoporik gabea. Kanpoko zuhaitzen ilara mantendu egingo da, eta gunek berdea zuhaitz horietara egokituko da, zuhaitzen egoera aldatu gabe.

Azken batean, oztoporik gabeko gunek zabal bat egongo da etxebizitzentzako eta saltokientzako ondoan. Hori dela eta, altzarien elementuak gunek berde horren ertzean edo harekin tartekatuta daude: terrazak, markesinak eta edukiontziak, bizikletentzako aparkalekuak, etab.

### **Garberako biribilgunea**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Construcciones Zubieder SL-ri esleitzea Garberako biribilgunearen inguruan bideak egokitzeko proiektuari dagozkion obrak egiteko kontratua. Proiektuak 249.786 euroko aurrekontua du, eta 13 asteko egikaritze epea.

Garberako biribilgunea Garbera zeharbidean dago, eta puntako orduetan zerbitzu maila txikiak ditu. Garberako merkataritza guneko instalazioak handitu egin direnez, biribilgunearen funtzionamendua hobetzeko, aurreikusitako zirkulazio hazkundearen aurrean, hainbat jarduketak aurreikusi dira biribilgunearen inguruan.

Biribilgunean egin beharreko jarduketak aprobetxatuz, ondoko suhiltzaile parkeko ibilgailuen irteerei buruzko seinaleztapenean zenbait hobekuntza ezarriko dira.

### **Suhiltzaileen ibilgailuak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du SPISZ-rako hiru ibilgailuren hornidura kontratatzeko espedientea onartu du. Lizitazio aurrekontua 138.842 eurokoa da, eta entregatzeko epea 10 hilabetekoa.

Kontratuaren xedea da Ibilgailuen Atalerako hiru ibilgailu hornitzea: mendiko/altuerako erreskate materiala eramateko 4x4 furgoi bat (45.454 euro), agintarientzako 4x4 furgoi

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



konbinatu bat (49.586 euro) eta pertsonak eta materiala eramateko furgoi elektriko bat (43.801 euro).

### Amara kaleko eraikinak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Amara kaleko 11, 13 eta 17 zenbakietako etxebizitzak eraisteko proiektua. AGM arquitectos, S.L.P. enpresak idatzitako txostenaren ondorioak kontuan hartuta idatzi da proiektua eta 504.621 euroko aurrekontua du.

Txosten honen helburua zen eraikinak zituen arazoei aurre egitea eraikinaren birgaitzea, birsortzea eta balorean jartzearen bideragarritasuna aztertzeko.

Ondorioa honakoa izan zen: birgaitze, birsortze eta balorean jartzeko jarduketa hipotetiko bat egiteko jarduketa integrala egin behar da, forjatuak hustuz eta lekualdatzeak eginez. Izan ere, eraikinaren estrukturaren egoera oso larria da, kolapsatzeko arriskuan dago, eta beraz, ez du baimentzen jarduketa integralik gabeko plangintzarik.

Birgaitze hipotetikoaren kostuak erraz gaindituko luke hirigintza arloan "hondamen ekonomikoa" deritzona. Kontuan izanda, gainera, interbentzioak ostatu emateak ekarriko lituzkeela eta hainbat gabezi utziko lituzkeela, eraikina birgaitzeko, birsortzeko eta balioan jartzeko hipotesia ez da bideragarria.

### Baranden mantentzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, barandak, oinezkoen babesgarriak, itxiturak eta hirian diren bestelako errementaritzak konpontzeko, berritzeko eta mantentzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea. Aurreikusitako urteko gehieneko aurrekontua 175.000 eurokoa da eta egikaritze epea 2 urtekoa izango da, eta urtebeteko beste bi luzapen egin ahal izango dira.

### Frantziako Tourra

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du baimena ematea 2021-2023 aldirako lankidetzak hitzarmena izenpetzeari 2023ko uztailaren 1etik 3ra bitartean izango den "Grand Départ Tour de France – Pays Basque 2023" ekitaldia antolatzeko.

"Gran Départ Tour de France Pays Basque 2023" antolatzeko proiektua Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek eta Vitoria-Gasteizeko, Bilboko eta Donostiako Udalek partekatzen duten proiektua da. Hortaz, erakunde nagusienak parte hartuko duten herri proiektua da.

Lasterketako lehendabiziko hiru etapa hiru lurralde historikoetan egingo dira uztailaren 1etik 3ra, eta hirugarren etaparen amaiera Iparralden izango da.